



JUAN BAUTISTA IRAZOKI ▶ ASKETA-KO ZUZENDARIA

«Polonian lortu genuen arrakastarik handiena»

LEITZA ▶ Koruak 25 urte bete ditu eta bi kontzertu emango ditu Katalunian

GARAPENA ▶ «Zaletasuna egon arren jende ugari igaro da korutik», dio ▶ 7



Irazoki Leitzako abadea abesbatzako zuzendaria ere bada. N. GARZIA



A. LETAMENDI

Bidaiaren ideia oleoetan erakutsia

TOLOSA ▶ Alberto Letamendiren 'Migraciones: sonidos desiertos' izeneko erakusketa ikusgai da Aranburu jauregian ▶ 4

VILLABONA ▶

Flemingo gurasoak, ikasleentzat autobusa lortzeko lanean

Lehen Hezkuntzakoak Arratzainera autobusez igo ahal izatea nahi dute ▶ 2



Zenbait ikasle herrigunera oinez jaisten, Otsabi auzora. I. GARCIA

IBARRA ▶

Elkartasun Aerobik Maratoia egingo dute

Belabietan izango da maiatzaren 5ean ▶ 6

POLITIKA ▶

Sinatzeko aukera ere beste hainbat herritan

ERREDAKZIOA

Ezker abertzaleak hauteskundeetarako plataformak aurkezteko deituriko sinadura bilketari dagokionez, Orexako, Berrobiko, Belauntzako eta Leitzako herritarrek ere aukera izango dute sinatzeko. Orexan, igandean, hilak 15, 11:30etik aurrera ahalgo dute udaletxean. Berrobin, udaletxean, lanegunetan, 09:30etik 14:00etara. Belauntzakoeke Tolosako notari-tzara joan beharra daukate, 09:30etik 13:30era, eta asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara ere. Leitzan, udaletxean, astelehenerik ostegunera, 09:00etatik 13:00etara, ostiralean 19:00etatik 21:00etara eta larunbatean 12:00etatik 14:00etara.

Bestalde, atzo argitaratutako informazioan, zenbait herrien ordutegiak ez zeuden ondo zehaztuta. Jarraian, herri horietan non eta noiz sinatu ahal den: Anoetan, udaletxean, 12:00etatik 15:00etara lanegunetan, eta gaur eta hilaren 17an 16:00etatik 18:00etara; Tolosako notari-tzari lanegunetan 09:30etik 13:30era eta asteazkenetan 17:00etatik 19:00etara. Ibarriari dagokionez, 07:00etatik 14:30era udaletxean; gaur eta hilaren 17an, 18:30etik 20:30era; hilaren 14an, 10:30etik 13:30era. Iruran, udaletxean 09:00etatik 14:00etara eta asteartean 16:00etatik 19:00etara. Tolosan, 10:00etatik 14:00etara udaletxean eta 09:30etik 13:30era notaritzan; astezkenetan 17:00etatik 19:00etara notaritzan.

Herritarrei deia luzaten diete ezker abertzaleak, besteak beste, «prozesu demokratiko bat garatzeari» bul-tzada emateko.

**Lizartzako Udala**

IRAGARKIA

2007ko apirilaren 2ko, 65 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera Anitzeko Lokalaren lehiaketarako Deialdian buruzko iragarkia argitaratu da. Dokumentua Lizartzako Udaleko idazkaritzan zertu ahal izango da, lanegunetan, bulego ordutegiz, hau da, astelehenerik ostiralerara, goizeko 8:00etatik eguerdiko 14:00ak arte. Proposamenak aurkezteko epea, apirilaren 27an amaituko da.

Lizartzan, 2007ko apirilaren 4an.
ALKATEAK
Joseba Egibar Artola

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA



Eskolatik atera ondoren, zenbait ikasle herrigunera oinez jaisten, Otsabi auzo aldera. I. GARCIA

«Autobusa haur guztientzat»

Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak Arratzainera autobusez igotzeko lanean ari da Fleming eskolako guraso elkarteak

IMANOL GARCIA

Fleming eskolako guraso elkarteak ez du bere helburuetako batean ere etsitzen. Urteak badira Arratzaingo eraikinerako doazen Lehen Hezkuntzako ikasle guztientzat autobus zerbitzua eskatzen dutela. «Egun 4., 5. eta 6. mailakoeke ez dute autobus zerbitzurik, hau da, 130 haur inguruk», diote guraso elkartetik. Horiek guztiak gurasoekin autoetan edo oinez igo behar izaten dute.

Garraio zerbitzuaren eskumena Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak du eta honek ez du autobusik jartzen eskola herrigunetik 2 kilometrorara baino gutxiago dagoelako. «Oso gutxi falta da 2 kilometroetarako», azaltzen dute guraso elkarteak.

Autobusa lortzeko bidean, bi txosten eskatu dizkiote Villabonako Udalari. Alde batetik, Arratzaingo eskola kokatuta dagoen Otelarre auzoaren sailkapenari buruzko ikerketa. Hau da, zehaztea Otelarre auzo sakabanatua den edo ez. Amasa eta Agaitz sakabanatu bezala sailkatuta daude eta leku horietako ikasleek autobusa dute. Beraz, Otelarre auzoa sakabanatua izanez gero, Ordezkaritzatik autobusa jarri behar harko lukete.



Txerminetik Arratzainera autoz igotzeko errepidea moztuta egon da egun hauetan euriak eragindako lur-jausia dela eta. I. GARCIA

Beste txostena ikastetxeiko sarbideari buruzko arriskuei buruzkoa da. Guraso elkartetik N-1 errepidearen ingurukoak zehazten dituzte, alde batetik: «Autobidearen azpiko bi pasabideetan arazoak daude. Otsabikoan ikasleek bidea gurutzatu behar dute eta kotxeak N-1etik sartu ondoren abiadura handian jaisten dira eta abiadura jaisteko neurriak ez dago. Txermingo pasabidea estua da, bi norabidekoak gainera, espaloirik ez du eta bertako argia eskasa da».

Bestalde, N-1a eta ikasleak dihoazten bidearen arteko distantzia 2-3 metrokoa dela diote. «Autobidea beharuntz doa, ibilgailuak abiadura handian

dihoaz eta bazter-babes bakkarra dago».

Horrez gain, Txerminetik abiatzen den errepidea ezin izaten da erabili euriak gogotik jotzen duenean lur-jausiak izaten direlako. Bestalde, guraso elkartetik diotenez, «argia eta espaloia duen ikastetxe bide bakarra Otsabikoa da. Txermin auzotik bi bide daude, bata bi norabideko landa errepide estua da, eta bestea argirik ez duen biztanleen ibilgailuentzako sarbidea». Gurasoak ere ez daude oso lasai ikastetxera igotzeko bide gehiena babesik gabeko eremuetatik egiten delako. «Zortzi urteko haurrak ibiltzeko leku egokia ez zaigu iruditzen», diote.

ANOETA ▶

Herriko festak iragartzeko kartel lehiaketa abian da

ERREDAKZIOA

Anoetako Festa Batzordeak aurtengo herriko festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatzen du. Lanak udaletxean aurkez ditzakete interesatuek eta epea hilaren 27an amaitzen da, 13:00etan.

Kartela festetako egitarauaren liburuakaren azala egiteko erabiliko da ere. Kartelak karratua izan behar du, eta gehienez neurri hauetakoa: 29,7 zm. x 29,7 zm. Teknika libre da, hau da, eskuz egindako marrazkiak, akua-relaz egindakoak eta abar aurkeztu daitezke. Formatu digitala ere egin daitezke lanak. «Anoetako Festa 2007» testua agertu behar du kartelean. Lanak koloretan aurkeztuko dira, originalak, eta beste inon ez aurkeztutakoak.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orexa. Medikua: 682228

- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930


Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

NATURA ▶

Euria, ia denon gustura

Errekek ia gainezka egin badute ere, adituen arabera ez da normaltasunetik kanpoko fenomeno, ia urtero bezainbeste egin baitu, baina egun jarraietan



Tolosaldeko horniduraz Gipuzkoako Ur Kontsortzioa arduratzen da.

JOSE ANTONIO IRASTORTZA ▶ BASOZAINA

«Onena, garai honetan mendietan elurra izatea da»

Jose Antonio Irastortzak ia 23 urte daramatza basozain, Aralarren eta Enirion (Zaldibia, 1959). Negu hezeegia izan dugula badirudi ere, guztiz normala eta beharrezkoa dela ziurtatu du basozainak.

Euri asko egin du neguan?

Aurtengoa normala da oso. Datu zehatzik ez dut, baina zorronez, behar bezala egin du. Jarraian asko egin du, baina euri kopurua normala izan da. Onena, garai honetan oraindik ere elurra izatea da: litro horiek uretan izango balira aspaldi beheran izango ziren, baina elurra izanda, gutxinaka joango da urtzen.

Udan beraz, lehorterik ez?

Udarako iturburuentzat oso ondo dator ur hau, eta aurreikuspen oso onak ditugu. Berriz diot, onena garai hauetan mendietan elurra izatea dela.

Errekek asko handitu dira.

Bai, hori egun jarraietan euri asko egin duelako da, eta erre-kari ere bere lekua kendu izan

zaiolako. Nafarroan gertatu dena, Piriniotan elurra egon dela, eta berez han bertan ere euria egin duela da. Dena batean joan zaie.

Aralarren euriak beraz, ez du kalterik egin.

Ez. Aralar geologikoki hitz eginda, karstikoa da, hau da, harkaitzak zartatuak daude, eta ura tarreatatik behera beharala jaisten da. Honek bi ondoriotara garamatza: alde batetik, bertako ura oso oxigenatua dago, oso osasuntsua eta oso kalitate onekoa da, daukan zuloengatik eta haize korronteekin, hain zuzen. Bestetik, zuloak izatearekin, euriari ez dio goian asko eusten, ura beharala joaten da beheraka, denbora gutxian ur asko.

Urtaroak desagertu egin dira?

Beno, honen aurrean zientzilariei sinetsi beharko zaie... Gehienez ere, 80 urte inguru bizi gaitzeko, eta ez dira urte asko horretaz konturatzen.



Oria ibaia Tolosan zehar, martxoan, ur-emari handiarekin. A. IMAZ

NEREA URBIZU

Euriaren falta ez da askotan gure eskualdeetan somatzen, hezetasuna eta euria baitira klimaz hitz egiterako orduan beste lurralde-taz gehien bereizten gaituena. Errekek eta ibaiek ia gainezka egon ohi dira.

Neguko azken egunetan eta

orokorrean martxoan euria eta elurra izan dira kaleetako eta zeruko protagonistak. Horren jakitun da mundu guztia, baina gure mendietan ekaitz eta euri hauek era ezberdinean eragin dezakete. Artzainak, basozainak, biologoak, baserritarrek... Hauek guztiek makina bat gautan ez dute lasai lo egin ahal izan, hurrengo goizean naturar zer eskainiko ote zien jakin gabe.

Leitzan, Gorritzarren eta Usategietan Jose Jabier Gorritz artzainaren ardiek udazken eta negu honetan ez dute mendia nahi bezainbeste ikusi eta zanpatu; haien jabeak esan bezala, «behientzat ez da horren txarra izan, baina ardientzat okerragoa izan da: udaberrian aziendak kanpoan daude, eta martxoan zehar ikuluian egon behar izan dira. Gainera, hotzarekin esne askoz ere gutxiago ematen dute». Lehorra heldu zen lehendik eta elurrari esker iturriak elurrarekin hasetu dira, «baina ez guk nahi genuenean, lehenago baizik».

Txiki-txikitatik artzain den leitzararren arabera, «hiltzeta oso epela izan zen eta bukae-

ran elurra egin du; normala izan ez dena halako beroak izan dira. Elurrak beti mesede egiten du».

Aranzadi botanika saileko kideak landareen gaineko informazioa jasotzeaz eta azterteaz arduratzen dira. Haien esanetan, «landareak eta animaliak prest daude, eta oso ohituta eurite hauetara. Negu hau lehorra izan da, eta azken egunetan euri asko egin badu ere, ez da gehiegikoa izan; hau da, landareek erraz jasan dute, norberaren defentsak erabiliz». Orain mendia «oso ondo» dagoela diote, lokatzez beteta eta hezetasuna dago, baina «uda gure ustez, gogorra izango da».

Mementuz, animalientzat elikadura dago, eta ura ere bai. Urtaroak ere aldatzen ari direla diote: «Pentsa, lore bat apiril oraintxe loratu da, eta lehenengo urtean, berriz, martxoaren hasieran zegoen. Zikloak eraldatu egin dira. Hurrengo urtean auskalo zer gertatuko den».

Hirigintza ura bildu nahian

Euria egiten badu ere, ez da mementuz gehiegizkoa izaten, adituen arabera. Horretarako, azpiegiturari dagokionez saikera handi bat egiten ari dira Tolosaldean. Gipuzkoako Ur Kontsortzioa Tolosaldeko hornidura-sistema gaur egun erakitzen ari da eta Ibiurko urtegiak eta edateko uraren araztegiak osatuko dituzte. Lan honetan, dagoeneko hainbat herritan biltzeak egin dituzte. Saneatutako udalerrriak hauek dira: Ikaztegieta, Altzo, Alegia, Tolosa, Ibarra, Belauntza, Berrobi, Anoeta, Irura, Hernialde, Villabona, Asteasu, Zizurkil eta Aduna.

Ibiur urtegiaren obrak ere aurrera doaz, Baliarrain inguruan. Hormigoi konbentzionala izango da, eta ura biltzeko edukiera 6.500.000 m³koa izango du, 70 metroko altuera, 500 litro segundoko erregulazio-ahalmena eta 25 m³ko isurraketa errota. Dirudienez, 6.000.000 litro banatuko ditu urtero.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irudietan. Dagoeneko hasi dira internet bidez V. Hitza Argazki Lehiaketarako irudiak iristen.

Webgunearen behelaldean orain arte iritsi direnak ikusteko aukera izango duzu. Sar zaitetz, eta bide batez, anima zaitetz zure Aste Santu opporraldiko argazki bat bidaltzen.

iragarki laburrak ▶

LANA

Gidaria. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. 943 44 48 66.

Garbiketa, sukaldia. Garbiketa eta sukaldia jangeletarako, eskoletan. 943 44 48 66.

Tabernaria. Tabernaria behar da. Telefonoa: 615 78 90 06.

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33ra.

ERAKUSKETA ▶

Letamendiren margolanak ikusgai dira

Sahararen aldeko ekitaldien baitan da 'Migraciones: sonidos desiertos' lana

ERREDAKZIOA

Aste honen amaierara arte ikusgai da Alberto Letamendiren *Migraciones: sonidos desiertos* izeneko erakusketa Aranburu Jauregian. Egileak erliebea eta egitura lantzen du bere oleoetan, argi eta itzalekin jolastuz. Erakusketa hau Tolosaldea Sahararekin eta Ereite elkarte multikulturalak martxorako Sahararen inguruan antolatu zituen ekitaldien baitakoa da.

Lan honetan behin eta berriro agertzen da bidaiaren ideia. Bertan, hainbat izaki ikusten dira mugimenduan. Erakusketatik ikusi eta gero, galdera bat sortzen zaio ikusleari: Letamendik margotzen dituen izakiak norantz doaz? Normalean bidaiaren ideiak helmuga bat du, noranzko bat alegia. Kasu honetan, gehiago dirudi helmugarik gabeko ibilera, sen-

tsazio hori islatzen dute Letamendik margotutako izakiek. Eremita hutsetan, desertuan ageri baitira, beraien ibilerak erbeste zentzua hartuz.

Erbestera hauen zapatilek kuadroa orbandu egiten dute, beren urratsak margotuz. Zapatilek arrasto bat uzten dute, jada ez dagoena eta joan dena irudikatuz. Denbora eta espazio horretatik irten dena.

Bestalde, marraztutako karakolek gogorarazten dute, egungo gizakiaren atzerriratzea ez dela geografikoa edo denboran zeharrekoa bakarrik. Karakolen izaera hermafrodita eta mistoa subjektu berrien egungo mestizajearen irudia da. Margolariaren ustetan, erbestera at sentitzen da, loturik gabe, eta hortaz, etengabeko mugimenduan, nortasun egonkorrik gabe sentitzen da. Horren adibide dira margoetako karakolak.



ALBERTO LETAMENDI ▶ MARGOLARIA

«Modu batean edo bestean denok emigratzen dugu»

E. Ezeiza ▶ Margotzeaz gain, Ereite elkartean egiten du lan Alberto Letamendik (Ordizia, 1964).

Zergatik aukeratu duzu migrazioaren gai?

Ereiten lan egitean, beti izan ditut inguruan etorkinak. Horregatik aukeratu nuen gai hau.

Zein da erakusketa honenkin zabaldu nahi duzun mezua?

Margolanek ez dute izenbururik, nik nahi dudana, jendeari pentsaraztea baita. Bertan islatu dudana, taldeko migrazioa bada ere, aldi berean banakakoa ere erakutsi nahi izan dut. Bestalde, hanka pausok erakusten dute pertsonak beti uzten digutela beraien aztarna. Axolagabetasuna, maitasuna, gorrotoa... islatzen dituzte margoek.

Esango al zenuke, gizaki guztiak gairela emigratzailerik?


Orokorrean migrazioak beti izan dira, taldean nahiz banaka. Modu batean edo bestean denok emigratzen dugu, inguru txikietan bada ere.

Gogorra al da emigratzaileen bizitza?

Oso gogorra. Zaila da ingurukoak utzi eta beste norabait joan beharra. Denok dauzkagu nolabaiteko loturak eta zaila da hauek alde batera utzi eta inguru berri batera joatea.

Helburu edo noranzko zehatzik ba al dute margoetako izakiek?

Esaterako karakolak, hasierako margoan, denak batera pirlatuta ageri dira, baina ondoren, batu, eta norabide berean doaz denak horizontera. ◀



GIZARTEA ▶

Kazkabarraren 25. urteurrena dela eta, afaria

Aurten Kazkabarra taldearen 25. urteurrena dela eta, urte hauetan guztietan taldearekin harremana izan duen ororentzat afaria antolatu dute hilaren 21ean. Ferialekuan izango da afaria. Ume bezela, begirale bezela, lagun bezela, hasierako urteetan Itzaropena izenekoan eta ondoren Kazkabarran ibilitako oro animatu nahi dute. Giro ona eta euskalduna ziurtatua dagoela esan dute, izan ere, afariatz gain, arratsaldean trikixarekin kalejira egingo dute, eta afariaren ostean, argazkiak ikusteko aukera ere izango da. Hala, ber, musika, festa, jokua eta kontzertuak ere izango dira. Parte hartzeko txartelak Ikatz, Raku eta Mescal tabernetan eskuratu ahal izango dira.

MENDIA ▶

Alpino Uzturrek irteera antolatu du hilaren 22an

Alpino Uzturre mendi elkar-teak mendi irteera antolatu du hilaren 22an. Irteera Egozkue-Urkiaga mendatera izango da, eta 07:00etan aterako dira Pablo Gorosabeletik. 5 ordu eta 30 minutu inguruko ibilaldia egingo dute, eta Zuriain (1.410 metro) eta Okoro (1.259 metro) gailurrak igoko dituzte. Parte hartzeko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez bazkideek 12. Informazio gehiago lortu ahal izateko edo izena emateko Alpino Uzturreren egoitzan (Gudari 5, behea) edota elkarteko zembakian (943 65 27 89) egin beharko da.

GIZARTEA ▶

Boluntarioentzat ikastaroa egingo du Gizaldek

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuak boluntario eta irabazi asmorik gabeko elkar-teetako kideentzako ikastaroa antolatu du. Izen ematea Gizalden egin behar da, eta bulegoa hilaren 16ra arte itxita egon arren, www.gizalde.com webgunean badago izena emateko fitxa, eta posta elektronikoz egin ahal da.

TEKNOLOGIA ▶


Informatika topagune erraldoiari hasiera emateko guztia prest

Bihar hasiko da Gipuzkoa Encounter diseinu grafikoaren, musika elektronikoaren eta bideojokoen jaia, Usabalen

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosako Udalak antolatuta, Euskaltel Fundazioa eta Euskalamiga (Bilbon aspaldidanik egiten den Euskal Encounter informatika jaiaren arduraduna) laguntzaile dituela eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxaren babesarekin, bihartik igandera arte Gipuzkoa Encounter informatika topaguneak hartuko du Usabal kiroldegia. Hain zuzen ere, gaur bukatuko da bertan parte hartu ahal izateko izena emateko epea (www.gipuzkoaencounter.org helbidean), eta antolatzaileek dituzten datuen arabera, 300 lagun inguruk egin dute dagoeneko. Beraz, «arrakasta» izaten ari dela azaldu dute, «hurrengo edizio bat izateko adinakoa».

Lehendabiziko Gipuzkoa Encounter izango da asteburu honetan egingo dutena, baina ez da lehen aldia Tolosako Udalak honelako jai bat antolatu duena, antzeko jai bat egin baitzen 1995ean. Aurtengoak baliabide teknikorik onenak eskainiko dituela azaldu dute, eta gainera, Usabal kiroldegiko



Bilboko Euskal Encounter jaiaren une bat. HITZA

instalakuntzak erabili ahalko dituzte bertaraten direnek.

Izena eman dutenen artean, Gipuzkoakoak dira gehienak, eta adinari dagokionez, 25 eta 30 urte bitartekoak izango dira nagusiki, gizonetakoak batez ere. Guztiek hiru eguneko partayah gozatu ahalko dute, eta bertan, sareko konexioa izango dute banda zabaleko internet

sarbidearekin. Jardunaldiak musika elektronikoko, multimedia animazioko eta 2D eta 3Dko arte digitaleko zenbait lehiaketa ere izango ditu. Gipuzkoa Encounter-ek teknologiararen munduko jakitunen hitzaldi-egitarau bat ere eskainiko du. Solasaldi irekiak izango dira bai parte-hartzaileentzat bai egun horietan Tolosara bi-

DATUAK ▶

PARTE-HARTZAILEAK

Denera. 300 lagun inguruk eman dute izena dagoeneko. Gaur da izena emateko azken eguna.

Lurraldeka. Gipuzkoakoak dira %45a; Bizkaikoak %29a; Nafarroakoak %9a; Arabakoak %8,5; atzerrikoak %8,5a.

Adinaren arabera. 25 eta 30 urte bitartekoak dira %38a; 20 eta 25 urte artekoak %35a; batez besteko adina 24 urtekoa da, adinekoenak 44 urte eta gazteenak 16 dituelarik.

Sexuaren arabera.

Gizonezkoak dira gehienago; emakumeak %7a dira.

TOPAGUNEA

Egunak. Bihartik igandera.

Lekua. Usabal kiroldegia.

Parte-hartzaile kopurua. 400 postu.

Azalera. 2.500 m².

Konexioa. LAN 1Gbps-ko internet sarbidea.

Eremuak. Interesik handiena piztu duen eremua sareko bideojokoena da (%43); ondoren, Linux eta software guñeak (%21); hardware eta modding (%16); eta azkenik, arte digitalak (%6,7).

AZPIEGITURAK ▶

Bizilagunekin hitz egin eta balorazioa egin ondoren, Berazubiko TAO sistema aldatuko du Udalak

Txartela duten bertakoek orain arte bezala aparkatu ahalko dute, eta gainerakoek ordainduta

ERREDAKZIOA

Berazubini eta San Estebanen orain dagoen TAO sistema (2004ko iraila) «auzo horietako bizilagunek beraiek egingako eskaerei Udalak emandako erantzuna da». Hala, Udalaren arabera, egoera «hobetu» egin zitzaien aurreko hilabeteetako egoerarekin alderatuta; izan ere, herriaren erdialdean TAO sistema ezarri zutenean, «auzo horietara askoz ibilgailu gehiago joaten hasi zen, kanpotik

etortzen zirenenak, batik batik erdialdean aparkatu ezin eta inguruetara jo zuten aparkatzaera».

Bi urte pasa eta gero, beraien ordezkarien bidez aurrez balorazioa eta auzo horietako bizilagunei kontsulta egin ondoren, Udalak «beharrezkotzat» jo du Berazubini orain dagoen erregulazioa aldatzea, ondorengo arrazoi hauengatik: Jose Martin Iraola kalean, ostalari-tzako eta merkataritzako jarduerak «gorantz» egin du, be-

raz, errotaio bidezko aparkatze-sistemak («mesede») egingo die jarduera horiei. Era berean, komenigarritzat jo du Udalak erregulazio horretan futbol zelaiaren aurrean dagoen plaza ere sartzea, batez ere, «hurbil dagoelako eta TAO zonan irarrik ez sortzearen». Bestalde, orain arte egon den erregulazioak bertakoei besterik ez zien uzten auzo horietako zona eta gainerako kaleetan aparkatzen. Horrek «abantaila asko» dakartzala bertakoentzat, baina

zailtasunak sortzen dizkie kanpotik etorri eta hainbat arrazoi-erengatik hor aparkatu behar izaten dutenei (obrak, gremioak, senitartekoak bisitan...).

Hortaz, auzo osoan sistema berria martxan jartzen denetik, 4 Gunea Barruti Urdina izango da. Txartela indarrean daukaten bertakoek orain arte bezala aparkatu ahal izango dute, eta gainerakoek ordaindu egin beharko dute. Ordainketa egiteko, 4 parkimetro jarriko dituzte.

IBARRA ▶ KIROLA

Belabietan egingo dute Elkartasunaren Aerobik Maratoia

Ibarratik Mizio Taldeak eta Belabieta Kirol elkarteak maiatzaren 5erako antolatu dute hamabigarren edizioa



Iaz ere Belabieta kiroldegian egin zuten XI. Elkartasuneko Aerobik Maratoia. JAIONE ASTIBIA

ASIER IMAZ

Ibarratik Mizio Taldeak, Belabieta K Eren laguntzarekin, XII. Elkartasuneko Aerobik Maratoia antolatu du. Ibarra Belabieta kiroldegian egingo dute, hain zuzen, maiatzaren 5ean, arratsaldeko 16:30etik aurrera, eta gainera, aurtengoan, Gipuzkoako Aerobik Zirkuituaren finala izango da.

Aurreko edizioetan bezala, bilduriko irabaziaz Ibarratik Mizio Taldeak bultzatzen dituen proiektuak finantzatzeko erabiliko direla jakinarazi dute antolatzaileek eta parte hartzeaz gain antolakuntza lanetan laguntzeko deia luzatu dute;

«norbaitek ekintza hau aurrera ateratzen laguntzeko prest badago, asko eskertuko dugu edonolako kolaborazioa».

Partaideek izena maiatzaren 4a baino lehen eman beharko dute eta 6 euro ordaindu beharko dituzte. Informazio gehiago 943 67 15 44 telefonon izango dute eskuragai, honetaz gain, faxez ere inskripzioa bidali ahal izango da, hain zuzen ere 943 67 38 52 zenbakira.

Aurreko urteetan Aste Misiolariaren barnean egiten zen maratoia, baina aurten Gipuzkoako Aerobik Zirkuituaren finalarekin bat egin duenez, hilabete atzeratu dute antolatzaileek.

Hala eta guztiz ere, aldatuak handirik ez da egongo eta «parte hartzeko deialdi zabala» luzatu dute.

Irabaziaz lau proiektuetara

Ibarratik Mizio Taldeak jakinarazi duenez, Elkartasun Maratoiarekin lortutako guztia abian dituzten proiektuen artean banatuko dituzte. «Indian, oihanaren erdian dagoen Awa herritik diru laguntzak eskatu dizkigute zientzia laborategi bat egiteko bertako eskolan. Honduras eta Ekuadorren hiru proiektu ere baditugu, batzuk martxan eta besteak bidean, lanbide eskola horien artean».

OLATZ ALDASORO ▶ AEROBIK IRAKASLEA

«Egunerokotasuna ahazten lagun dezake aerobikak»



A. IMAZ

Olatz Aldasoro (Ibarra, 1985) Villabonan eta Ibarra Aerobik irakaslea da besteak beste. Horretaz gain, joan den urtean bezala Aerobikeko Elkartasun Maratoiarekin antolatzaileetako bat da.

Aurten Gipuzkoako Aerobik Zirkuituaren finalarekin bat egingo du Elkartasun Maratoiak.

Bai, horrela da. Zirkuito bat egin da orain artean eta hau izango da azken saioa. Hala eta guztiz ere, honek ez du esan nahi guztietan parte hartu behar denik Ibarra irteetako. Erabat irekia da, sarrera askea da eta ondorioz nahi duenak parte har dezake.

Zein ezaugarri ditu aerobik maratoi batek?

Guztira gutxi gora behera bi ordu eta erdi edo hiru orduko saioak dira. Irakasle batzuk igotzen dira gora eta 30 minutuko saioak egiten dituzte txandakatuaz. Hasieran beroketa izaten da, gero bakoitzak bere saioa eskaintzen du eta amaieran zertxobait luzatzen dute. Ondoren irakasle aldaketa dagoen bitartean atsedena ldi la-

bur bat egoten da, ura edan, arnas pixka bat hartu eta jarraitzeko. Normalean saiatzen gara saio ezberdinak jartzen, saltsa erakusten duen irakasle bat tartekatuz, besteak beste.

Zein da zure estiloa?

Orain dela gutxi hasi naiz irakasle lanetan eta ongi moldatzeko urte asko behar dira. Normalean denetik ematen dut, pixka bat aldatzea gustatzen baitzait. Batuka edo aerobio sartzen dut adibidez, jolastea da neurri batean. Dantzatzea bezala da; jendeari egunerokotasunetik ihes egiten laguntzen dion zerbait, txi-pa aldatzeko aukera bat.

Edozeinek parte hartu ahal lezake?

Maratoiak maila bat eskatzen du baina inork ez dizu ezer esango joan ezker. Hori bai, jarraitzeko nahiz eta azkenaldian ez egin aerobikik, komeni da noizean behin klaseren bat hartuta egotea. Hala ere egun honetan lagunekin elkartu eta ongi pasatzeko aproposa da, lasai-lasai zeure neurrian izerdi pixka bat botatz. ◀

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95



JUAN BAUTISTA IRAZOKI ▶ ASKETA ABESBATZAKO ZUZENDARIA

«Inoiz izan dugun arrakastarik handiena Polonian lortu genuen»

Asketa Abesbatzak 25 urte betetzen dituen urtean bere laugarren bidaia egingo du Kataluniara eta bertan, lau egunetan, bi kontzertu emango ditu

NAIARA GARZIA

Asketa abesbatzak gaur aurtengo lehenengo bidaia egingo du Kataluniara. 22 abeslari inguru eguerdian aterako dira autobusez eta igande arratsaldean itzuliko dira. Abesbatzak jada, *Jota Jotak* sortu zuenetik, 25 urte bete ditu aurtun, eta herri-ritik joan zenez geroztik, Juan Bautista Irazokik zuzentzen du. Lan horretan 17 urte daramatza.

Zergatik aukeratu duzue Igualdarekin lehenengo kontzertua emateko?

Igualdarekin lehendik nahiko harreman ona daukagu, haiek honera txiki-ekin etorri ziren, gero gu hara joan ginen. Hangoak hemen familietan egon ziren eta hemengoak ere hangoetan, eta hortik harremana sortu da. Haiek Leitzari gustua hartu diote eta udaro hemen dabilta, asko etortzen dira. Guk noizean behin, bi urtetik behin, koru gaztearekin diru pixka bat biltzen dugunean bidaiatxo bat egiten dugu. Txiki-ekin duela bi urte izan ginen han eta orain gazteekin goaz.

Zanbat kontzertu emango dituzue?

Bi kontzertu emango ditugu. Honetaz gain, haiek larunbat honetan festa bat dute: kalejira bat egiten dute, poltsa bat jartzten dute makil luze baten puntan eta jendeak balkoietatik gauzak botatzen ditu poltseta-



N. GARZIA

ra eta hor biltzen dutenarekin festa bat egiten dute. Hori aspaldiko ohitura da, duela gutxi berritu dutena. Honek ordu pare batez edo, kalejira bat egitea suposatzen du. Aurreko batean joan ginenean ere haiekin ibili ginen, trikitixarekin kantari. Honen ondoren eliza batean kontzertu bat emango dugu, eta igande eguerdian beste he-

rrri batetara goaz, bertan beste kontzertu bat eskaintzeko. **Zer abesti aukeratu dituzue?** Gure errepertorioa bereziki euskal folkloreko abestiez osatua dago, lau, bost, sei ahotsetara. Abesti alaiak aukeratzen ditugu. Egitarauak 100 abesti inguru ditu eta 20 bat prestatu ditugu bidaia honetarako. Falta garrantzitsu batzuk izango di-

tugu, denek ezin baitute joan, baina bidaia hau egin nahi genuen eta orain egiten ez badugu, ez dugu beste aukerarik izango.

Aurtun beste kontzerturen bat emateko asmorik ba al duzue?

Herri batetara joan beharrean gaude, baina bere herriko eliza obratan dagoenez, konponketa lanak amaitu arte ez dute beste lekuri... Etxarri-Aranazera ere joatekoak gara, baina haiek jarritako data ez datorriku oso ongi, ikasleak azterketetan egongo baitira.

Kontzertuak eman ez arren, entseguetarako astero elkartzen zarete?

Bai, guk ostiralero entsegu bat dugu eta orain ostiral eta larunbatetan biltzen gara.

Zelan lekuetan izan zarete urte hauetan?

Bidaia nahiko interesgarriak egin ditugu. Urte batean Poloniara joan ginen, Parisen ere izan gara eta Kataluniara hau laugarren bidaia da.

Kanpoan zer moduzko harre- ra izan duzue?

Zenbait lekutan esperientzia ikaragarri ona izan da. Adibidez, Poloniara joan ginenean, itzultzaile bat bagenuen eta kanta bakoitzaren esanahia azaltzen zuen aurrena eta ikaragarriko arrakasta izan genuen. Inoiz izan dugun arrakastarik handiena Polonian lortu genuen. Izan ginen he-

rrian eliza koxkorra zen eta bete-beterik zegoen. Kontzertua amaitu ondoren opariak eman zizkiguten, eta beste abesti bat eskatu ziguten, beste bat... Ez genuela amaituko uste genuen. Azkenean kalejira bat jotzen hasi ginen, txistuarekin eta hura kantariz bidea ireki genuen eta kanpora atera ginen. Atarian berriro kantari aritu ginen.

Eta beste lekuetan?

Pariskoa ere oso ona izandu zen, baina zenbait lekutan, Erribera aldean, Falcesen adibidez, juxtu xamarrekoa.

Abesbatzak, 25 urtetan orokorrean bi zuzendari nagusi izan ditu, ez?

Jota Jota hasi zen koru txikiarekin. Ni etorri nintzenean bazituen bi urte joanik eta koruarekin hasi nintzen. Asketa txiki hori jada Asketa gazte zen eta ni gero beste koru txikiarekin hasi nintzen. Baina sortu zenetik aldaketa asko jasan ditu. Orduan abesbatzan zebilenik ez dago.

Hainbeste urtez koru bat mantentzea erraza al da?

Hemen jendeak aldaketa handia izan du. Gazteak ikasketekin hasten direnean, bat Bilbora, bestea ez dakit nora joaten da eta gero lanarekin hasten direnean okerragoa izaten da. Urtero jendea aldatzen da. Afizioa badago, baina baita zailtasunak ere, jendea sakabanatuta baitago. Estu gabiltza, entseguetarako ezin elkartuz, baina ez afiziorik ez dagoelako, lanarengatik edo jendea ikasten kanpoan dagoelako.

Diru laguntzarik jasotzen al duzue?

Zuzenean laguntzarik ez dugu. Eguberrietan egiten dugun zozketa batean diru pixka bat ateratzen dugu, eta gero kontzertu batzuk ordainduak izaten dira. Hortik ere dirua etorri zaigu.

hitza

Harpidedunen txokoa

Egin zaitez harpidedun! ▶

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honetan
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44
Santa Mari plaza, 1 behea

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI
KINOLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb, 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Ibarra. Eriz magoaren emanaldia Benito Izagirre kultur etxean 11:30ean. Sarrera doan. Herriko haur, guraso eta aiton-amon guztiak gonbidatuta daude.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Joan den astean ospatutako Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, *Sirena*txoa ipuinari buruzko erakusketa ikusgai da Errota Haur Liburutegian hilaren 23a arte.

Tolosa. Alberto Letamendiren *Migraciones: sonidos desiertos* pintura erakusketa ikusgai da Aranburu Jauregian, hilaren 14ra arte.

Tolosa. Juan Ramon Llavori argazkilarik Nepalen egindako argazkiekin osatutako *Las miradas de la tierra* erakusketa dauka Aranburun, Amalur jardunaldiaren barruan antolatuta dute. Ikusgai izango dira hilaren 14ra arte.

Alegia. Isabel Azpiroztekin egindako margolanak daude ikusgai Alegiko jubilatuen tabernan. Apirilaren 16ra arte izango dira bertan, asteartetik igandera bitarte, egun osoan zehar.

ZINEMA

Tolosa. Gabriel Velazquez eta Chema de la Peñaren *Sud express* filma emango dute zine-forumean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Lekunberri. Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
Tolosa. Oiarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketak, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (erreplikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak.*
21:00-23:00. *Bide okerretik.*

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Hemen dira lehen argazkiak

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Irakurleen lehen argazkiak heldu dira HITZAko erredakziora; hilaren 25era arte duzue guztiok aukera zuenak bidaltzeko



GALIZIAKO KOSTA ▶

Iker Saralegi (Tolosa).

Tolosako Iker Saralegik Galizia aldera egin du bidaiari lagun batekin batera bost egun hauetan eta honako argazki ederra bidali digu HITZAREN lehiaketaren bosgarren ediziora: «Galiziako kostaldean paraje ederrak topatu genituen, ikusgarriak benetan. Argazkian ikusten dena Rias Baixas aldean topatu genuen kalita bat da, dondar zuri eta ur gardenekin. Argi dago ez dela hain urruti joan behar paisaia exotikoak topatzeko», dio tolosarrak.

VALENTZIA ▶

Maia Arantzetza (Leizta).

Maia Arantzetak Leitzarrak ere bidali du bere Aste Santuko oporraldiaren argazkia. Valentzia aldera (Herrialde katalanak) joan da, hain zuzen ere. «Argazkia Valentzian ateratakoa da. Albuferatik gertu dagoen naranjo sail batean. Valentziako baratzearen ezaugarri paregabea irudituta zitzaigun», azaldu digu Maiak argazkia bidaltzearekin batera.



AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Garazi Altuna Aburuza (Villabona). Gaur urtebete. Muxuak familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...